

Andramaixetan, Atanilloko pasoa itxita egongo da gauez. 21:00etatik 9:00etara egongo da itxirik, festetan paso horretan sortzen den zikinkeria ekiditze aldera. Izan ere, paso horren gaineko bizilagunak kexatuta zauden paso horretan festetan sortzen den zikinkeriarekin. Are gehiago, hori garbitzeko erabili izan diren produktuek kaltetu egin dute bebarruaren egoera eta horregatik hartu da erabakia.

Udalak gizatasunez jokatzeko eskatu nahi die herritarrei eta herria behar bezala zaindu eta txukun mantentzeko ahalegina egiteko.